

Musika

AURTEN ERE etxekalte nabil. Gipuzkoako Ezkio-Itsasoko Igar-tubeiti dolare-baserri ikaragarrian sagardo gotikoa. Nafarroako Baz-tango Arizkungo Gamioxarreko sekulako dolarean sagardo barro-koa. Italiako Lazioko Genzano eta Casaprotan paleosagardo. Eta sagardi-dolare-tina-barrika bidean, bateko eta besteko lagunen eta ezagunen sagarrei eskua luzatu, baina etxeko bukoi eta barrikak bete gabe. Berandu-sagardoaren zale garenari eskerrak.

Goiz-sagardotarako lanak abantaila bakarra du, nire ustez: muztio gozo eta sagardo berriaren egarritik asetzera lehentxeago igarotzea. Udazkenean bertan, garai batean bezala, barrikotean sardina zahar gazi edo gaztaina lehorren laguntzailerako, hor nonbait; urte osorako jasotzeko, behintzat, erdipurdiko sagardo izango da. Berandu-sagarrarekin egindako sagardoak alde ederreko festa antolatzen du ahoko zeruan! Eta, maiz, bigarren urtean eta hobea.

Botilako hori gero izango da, eta gero gerokoa bezala, garaian garai-koa garaiz. Orain sagardo ontzietan dago, lehen irakinaldia edo hartzidura egiten. Lehen horretan sagarraren azukrea alkohol bihur-

tuko da. Hartzidura hori aerobioa da, airea behar du, hobe esanda, aireko oxigenoa behar du. Oxigenoa hartu eta sortzen duen karbono dioxidoa kanporatzeko ontziaren gaineko zuloa irekita edukitzen da. Pospolo piztua zuloaren parean jarri eta itzaltzen duen artean CO₂ ateratzen ari den seinale. Itzaltzen ez duenean ontzia itxi daiteke, oxigenorik behar ez duten gainontzeko hartzidurek sagardo irauli dezaten.

Ontzia irekita dagoen artean intsektu asko bertaraten da. Bi eratako bisitariak izaten dira ohikoak. Batetik azukrearen zale den erle eta liztor jendea. Eta bestetik ozpin-eulia (*Drosophila melanogaster*). *Drosophila* hitzak ihintzazalea esan nahi du, eta agian genero horretako batzuk hala izango dira, baina gure upategietan ibiltzen den horri batez ere karbono dioxidoa gustatzen zaio. Edozein fruituk, heldu eta usteltzen denean, azukre-alkohola-ozpina bidea egiten du, etengabe CO₂ askatuz. Ozpin-euliari fruitu-euli ere deitzen zaio.



THOMAS WYDRA-CC BY SA

Drosophila melanogaster, ozpin-eulia, sagardo hartzitzen den ontzietako ohiko bisitaria.

Casaprotan Alex lagun sagardogilea harrিতuta zegoen zenbat ozpin-euli bildu zen, jotako sagarretara lehendabizi, eta barrikaren gaineko zuloa ondoren. Milaka eta milaka, gero eta ugariago. Urrutitik usaindu zuten CO₂-a, baita azkar asko hurbildu ere!

Alexek barrikaren aldamenen lo egin behar du. Eulitxoei ez zaie hura interesatzen, barrika baizik. Bizilagun egin dira. Musika dotorea sortzen omen dute. Sagardogintza da, agian, eskal musika instrumentu zaharrena. Txalaparta bera baino ere... ■



Zohia

Kirikoketa bestaren aitzakian, Baztan aldeko gazteek Arizkungo Gamioxarreko dolare barrokoan sagardo egiten dute. Lana besta eta besta lana, denetarako gai dira. Aurtengoan, hor ikusi nuen leiho koskan, sagardotzen ari zen muztioz betetako barrikotea. Jendeari eskatu ahala ematen zioten dastatzera. Niri ontziaren gaineko zuloa estaltzen zuen zotal antzekoak atentzioa eman. Eta edaria partitzen ari zenari galdetu eta ez zotala ez, zohia omen zen. Aitak erakutsia omen zuen: gaineko zulotik arnasa tamainan hartzeko lehenik oihala eta gainean zohia. Zotala baino lodiagoa izaten omen da. ■



JAKOBA ERREKONDO